Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipa Saturnina Berrostegieta Goiburu Satur

Leintz Gatzaga, Gipuzkoa (1912)

Aurkibidea

Biografia

Aita eta ama Gatzagakoak zituen. Bera, Errosario kaleko 9.ean jaio eta bizi izan da. Jostuna, 16 urte zituela Markinako familia batekin haien umeak zaintzen egin zuen lan bi urte inguruan Bartzelonan. Gerra garaian asko sufritu zuen bere familiak: bera kartzelan egon zen, baita bere gurasoak eta anaia ere, etxea galdu zuten...

Zintak

LEI-003

- **Proiektua**: Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-12-13
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

LEI-004

- **Proiektua**: Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-12-13
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Mini Disc

LEI-005

- **Proiektua**: Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-12-13
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Umezain Bartzelonan

- **Erref**: LEI-003/002
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Bartzelonan egon zen bi urte ingurutan Markinako pilotari baten etxean umeak zaintzen. Orduko ipuinak.

Transkripzioa
- Kanpuen ibilittekue zara zu be?
- Nik urtebete in neuen lehenengo fan nitzenien, ta bigarrenien, ba, egun batzuk gutxiao.
- Bi urte, behintzet, orduan…
- Urte bi.
- Urte bi…
- Deskantsuagaz, baiña urte bi. Eta tipo onak zien etxeko andre-ugezabak. Harek gau bat be ez euen isten urten barik. Pelotarixak, badakitzu. Pelotarixa zan gizona, ezta? Horrek zesta-puntakuak. Markiñakua zan. Eta hak egunero kanpuen [afaitten] ez baeuen urten, behintzat. Edo zinera edo teatrura edo kabareten batera be igual. Behin eruan nindduen, etxekoandriaz [han], e! Etxeko andriaz, hiru umiak eta neu. Frontoien egon, partidue ikusi, urten geuen ta esan euen etxekoandriorrek: “Ba! Oin ez goiez etxera zertzen, afarixa preparau ta zertzen. Hementxe dao kafeterixa bat”, han zerien, “Paseo Gracia” edo han zerien ez dakit ze bokakalletan edo, “Hementxe dao kafeterixa bat ta horratxe fan ta hartuko dou”. Fan gara, […] umiak —umiak, hirurak, hirurok, esateko, umiak— eta porteruorrek esan otsen: “Señora, estos no pueden entrar”, esan otsen, ezta? Ta, ba, gu isilik. Ta berak esan otsen “¿Por qué? Si venimos a tomar un café. —esan otsen— ¿No es una cafetería o qué?”, “Era”.
- Aldatuta euen, orduen?
- Bai, [aldatuta]. Harek ez ekixen ezer ta guk gutxiao. “Era”. Bueltia ein ta

etxera.

2. Umezain Bartzelonan

- **Erref**: LEI-003/003
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:02:35. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
14 urte zituela Markinako etxe batera joan zen umeak zaintzera. Lau urte eta erdi egin zituen beraiekin. Pilotaria zen etxeko gizona eta bi urtetan Bartzelonara joan zen beraiekin.

Transkripzioa
- Gazteik fan zitzen…
- Ba, hamabost urte bertan zerien; Markiñan [neuen] hamabost urte kunplidu neuenien. Hille bi in gittun Markiñan, ezta? Eta hantxe neuen. Hamalau urteaz sartu nintzen ta hamabost hantxe kunplidu neuen.
- Kriada han be?
- Ba, eurakaz. Etxekoandriek… [Oseake], hemen euken ama. Etxekoandriek hemen euken ama, eta anai bat, ezta? Eta etorri zien Kubatik edo Mejikotik edo ez dakit nundik etorri zien. Eta ekarri euen ume txikiña, sei hillebeteko umia. Ta fan biher euen beste batek, baiña bestien ama gaixotu ein zan eta, ba, neskiorrek ezin leikiela fan esan otsen, ezta? Ama gaixotu ein jakola ta itxoin ein biherko dauela ta… Baiña umie zainketako biher euen bateronbat, eta gure amaana etorri zan amandrie, umien amandrie. Bera etxekoandrie ez, haren ama etorri zan, ta esan ei zotsen —nik ez dakit zer esan otsen, ezta? ni ez naz akordetan ta—: “Esto… esto… Satur, bialduko dozu umie zainketako? Etxera etorriko da lo itten, e! Baiña umie zainketako. Ta geurien bazkalduko dau”, ta, ba, “Bueno, denpora gutxiko bada, bai”, kontestau ei zotsen berak, ezta? Ta fan nitzen. Akordetan naz, karnabal eguna zan, gaiñera, e! Karnabalez jantzitta euzen plazan fiestie ta. Hori akordetan naz. Febreruen atzenak edo izango zien. Eta fan nintzen; ba, lau urte t´erdi, esan notsun moduen.
- Eurokin?
- Egun birako fanda.
- Egun birako fan ta…
- Klaro, gero bestia ez zan etorri. Ta zelan ez zan etorri, ba, […] esan [otsen]: “Geldittu…?”, ta “Bueno”. Eta gero, ba, esan otsen juni… ez juli… Hurrengoko urtien izango zan […] Barzelonarako, ta amak: “Umia don, baiña, ondion! Hamabost urte ez jaukan ta! Hamalau urteaz zelan fango don, ba, Barzelonara?” esan otsen. Gero amak kontetan osten, ezta? Niri ez osten eze esan ta. Ta nik baietz. Markiñan be egon nintzen hillebete, zeatik bera gizona Markiñakue zela zan, han, Jemeiñen. Egun baten, akordetan naz, automobil txiki-txiki-txikitxo bat zan. Orduen ez euen automobillik! Bateronbatek beuken… Ta harek baeuken holako txiki… baiña nik ez dakit ze automobil zan; txikitxo bat! Hiru neska eta ez dakit sei edo zazpi ume automobillien sartu, bai? Eta Jemeiñeraiño eruen nindduen Markiñatik. Nik arbolak ikusi be ez nittuen eitten! [… belozidadie]! Ene! Honek akabauko gaittu! Eta etxien ez ekixen ezer. Etorri nintzenien, “Nun egon zarie?”, ta isilik. Baiña baekixen, e! Ez dakit zeiñeaz fan nintzela. Ta “Haregaz”. “Zoruao da ez dakit zer baiño ta ez dakit…”, bilddurtuta danak

eta gu [...] automobillien. Ez dakit sei edo zazpi ume zoiazen, e! Nik bi, neskatillia ta mutikua; beste neska nausitxuena ha ez zan etorri. Ta bestiek be, ba, holaxen erungo euen. Asike...

3. Umezain; berrikuntzak etxean

- **Erref**: LEI-003/004
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:09:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Umezain egon zeneko kontuak. Berrikuntzak: komuna...

Transkripzioa
- Ta zure lana zan ume-zain?
- Bai, bai nik ez neuen eitten besterik. Ura, ura eruen. Orduen ez euen urik etxien, ezta? Eta itturrittik ura karriau. Ta umiek zainddu. Bestela nik ez neben eitten ez jatekorik eta ez erropak garbittu ta jabonau ta holan ezebe ez neuen eitten. Umia. Umia kalian ibili ta...
- Ta ura sarri ekarri bihar ala?
- Klaro! Etxien falta eitten dauen ura, ba, eruan ein biher. Baiña balde bi hartute eruten neuen ta tira! Gabien, gabien, umiek ohera faten zienien, orduen kargetan geuen urori hurrengo egunerako. Tiña zahar haundiren bat bete ta ala! Hemen be holaxen eitten geuen!
- Hemen be urik ez etxien...
- Ez geuken ta! Hor goiko [...], kamiño eskiñan dauen itturrittik, hor [krutza] bat dao, ezta? Ta ha bete ta hortik [askaurretik] zera, komunerako ura goixen. Komun gaiñien depositua ein geuen. Ama difuntiak, ezta? “Hor depositto bat ein leike, ba. Lekua badao, [...] badao, ta. Ura, komunerako behintzat ura eukitteko. Jentia datorrenien be betik komunera zoiezen bakotxien baldekada ura botaten ibili barik”. Ta, klaro, ba, ein euen. Ein otsen, depositua ein otsen, ezta? Ta ifiñi euen. Ta zapatuetan beteten geuen depositua aste guztirako. Aste guztirako egoten zan beteta. Handik karriau eta bete. Polea txikitxo bateaz igo ta tira. Eta behin andra bat akordau zan zer eitten ete [geren]; zetan, zapatu guztietan, zetan karrietan geuen hainbeste ur ta nora. Hemen oin [Arratekue] dauken lekuen, ezta? Tabernia. Eta akordau zan, eta preguntau otsen amari: “Lola, zapatuetan zer eitten dozue uragaz?”.
- Zetako hainbeste ur? E?
- “[Hara, hainbeste ur karrio]” ta, ba, “Hauxe ta hauxe”, ta “Ez da egixa izango!”. Ta zer ein euen harek? Gure aittari enkargau horretaiko ziñezko tiñak. Ezta? Lehen horrek beste... zerak ardaua-ta gordeten dien moduko horretaikuek izaten zien pujatie eitteko, pujatie eitteko izaten zien, ezta? Ta aitta difuntuek ekarri euen etxerako ziñezkua. Haundi bat. Ez dakit behien edo nun egongo dan. Bere grifo ta guzti. Eta enkargau otsen. Ekarri otsen ta ifiñi euen kamaran ha. Ta ha beteten euen ta eurok be, ba, ure eukitten euen aste guztirako edo aste erdirako edo, ba, hutsiketan zanien, ba, [gero] bete. Eta holaxe.
- Oin baiño gehixao begiratu be eingo xakon urai...
- Bai. Konparaziño baten, fan ta txixa bakarrik eitten bazeuen... Baiña gorputzetik eitten bazeuen, ba, ura bota behintzat ta kitto.

- Gauza bat: ura ekarrittakuan zerbait esan biharrik egoten zan? Etxera ura ekarrittakuan...
- Ez.
- Ez zeuan ohitturarik hola...?
- Ez. Itturrira fan bihar nintzen, etxien ez geuken! Guk [...] ostian atia zela daukoun, ezta, hortik, kamiñua krutzau. Hori tabernako etxiori, eta kamiñua krutzau ta ya esta. Behetik karriau bihar bazan, bai, zerak [...ko] jonan horrek eskillara guztiok! Ta ekarten geuen, e! Ta holaxe. Gatzan bizimodua holaxe.

4. Josten ikastera

- **Erref**: LEI-003/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Arrasaten josten ikasten egon zen.

Transkripzioa
- Gero joskin ibili zitzen...
- Bai. gero Mondrauen Gorroñogoitianien ikasi neuen, amagaz, Pruden. Pentseizu, hori, Alfonso edo hori txikitxue zan; esateko, jaixobarrixa ni han ibili nintzenien, ezta? Ta amandriek esaten osten, betik euen negarrez, betik negarrez umiori ta: “Zazpikixori halakuori, zazpikixori!” esaten otsen, ezta? Ta, ba, “zazpikixa” negar eitten euelako esaten otsela. Ta behin preguntau ein notsen. Zera, Mondrauen tabernia beuen zera, “Berbena” ez, beste bat zan, [...] tabernia, han, frontoi ondun euen. Hak euken automobilla ta. Eta gero euen bestia “Hilarionena”, eta hango neska bat be josten ebillen. Ta harek kontetan zittuen izateko batzuk... tabernan entzunda, e! Tabernan entzunda. Ta guk, ba, juerga. Ta bestie etorten zan ta “Baiña ondion ez dozue ein hau edo hori edo bestia” ta halaxe. Ba, holaxen. Ni astelehenien fan ta zapatuan etxera. Holaxen ibili nintzen; urte t´erdi edo ein neuen.

5. Arropak josten urte askotan

- **Erref**: LEI-003/007
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Jostun bezala lan egin zuen urte batzuetan. Gasteiztik ekartzen zioten lanerako behar izaten zituen gauzak.

Transkripzioa
- Ta han joskin ikesi ta gero...
- Han joskin ikesi ta gero etxien egon nitzen. Bai, etxien. Ta holaxe, nire

bizimodue holaxe. Batzuk kobrau ta beste batzuk kobrau barik ondion.
- Neurrira...? Holan, neurrixak hartu ta baikotzai...?
- Bai, bai, bai. Badakitzu, hemen, ba, batak eta frakak eta alkondara ta... gehixen horixe. Bai.
- Zuk zeuk kanporako eitten zauen...
- Bai. Baiña horreatik esaten dotsut, batzuk kobrau ta beste batzuk kobrau barik eta ondion halaxe.
- Eta ehunak-eta edo tela edo materiala-ta nundik eskuraketan zittuen?
- A! Ez, telia eurak ekarten euen itteko. Bai. Eta, bestela, ba, neuk ezin baneuen fan Vittorixara, zera, hor Gatzaga gaiñien Gure Ametsan euen bat lehen ferrobiarixue izandakua. Ezta? Eta hak euken debalde trena. Eta errekauren bat bihar banauen harei emoten notsen apuntaute ta harek ekarten osten Vittorixatik. Klaro. Eta etxera ekarten osten, e! Ta propiñatxo bat emoten notsen ta...

6. Umeen arropak

- **Erref**: LEI-003/008
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Umeak nola janzten ziren. Barruko arropak. Umeen frakak atzetik zabalik.

Transkripzioa
- Eta orduan zela jazten zan? Porejenplo, umiek zela jazten zien?
- Umiek ointxe... ez... Bueno, frakakin ta holan ez, neskatillak sekula be ez frakak, e! Beti euren soiñekotxuekaz. Perkalezko soiñekotxuek, ezta? Ba, zurixak, ondo zurixak, [babatxoren] bategaz edo [mantaltxuekin] edo holaxe, ezta? Fruntze-fruntze in, zertu, eta holaxe, neskatillak holaxe. Mutikuek ez, mutikuek ya frakakin.
- Fraka motxak ala luziak?
- Ba, batzuk motzak, beste batzuk luziek eta beste batzuk erdizpurdizkuek. Ez luziek eta ez motzak, holan belaunak tapauta... Ta txikitxuek bazien, gurien modukuak bazien, atzekaldie zabalik, alkondaratxue urtenda... “Han Gregorio!”. Hemen bat ya nausixa, Gregorio euken izena, ezta? Ta karterue zan. Ta ama oso joskin ona zan; [hala be] gizonezko erropetan oso ona zan. Ezta? Erropa ona itteko ez, e! Baiña diarixoko erropia itteko. Eta beti ibiltten zan alkondaria, zera, fraketatik kanpora. Ta “Han bajoian seboliña darixola dauela”, burla.
- Seboliña... zela esan dozu? Zeboliña darixola?
- Seboliña...
- Zer da hori?
- Seboliña, ba, alkondaria fraketatik bistan. Ezta? Ta holaxe, holaxe.
- Seboliña darixola...
- Seboliña darixola.
- Seboliña alkondariai esaten [xao]?
- Alkondarie... zuk alkondarie jazten dozu ta, ba, barrura, fraka barrura, sartzen dozu, ezta? Ta atzekaldetik betik, zera, [ziminizkoka], [atzetik ibiltten]... Ta seboliña esaten gontsen. Umiak... umiei ifintten notsen, holan... ba, berbetan ez zekixenei-ta, ba, holan, gaztiak zieneien,

badakitzu, frakak ifini ta ezin kendu eta kakaguria baueken, kaka fraketan eitten euen. Eta ein ez deixen, zabalik. Eta, holan, ba, makurketan zien, eitten euen, ta ya esta, ez euen frakarik […]. Pentsau ein bihar da dana!
- Oseake, umiek fraka zabal-zabalakin ibiliko zien orduen…
- Eta barruko erroparik-eta, lehenao beti ez zan ibili…? Bueno, lehenao…
- Bai, ez… guk geurien sekule ez dou zertu. Kamisetie ointxe letxe, ezta? Neguen felpazkue edo gura dana eta udan mehiak, tirantedunak edo zerak, ezta, betik. Gurien ama difuntiek hortarakotxe betik udan "quita y pon", eta gero beste bat "de repuesto", edozer gauza pasetan bada be, akzidente bat edo edozer gauza pasetan bada be. Ta holaxe. Hori ez… kamis… Ta beste batzuk be holaxen ibiliko euen, nik ez dakit, ezta? Baiña… Bai. Baiña, bestela, oin lako lujorik ez, esaten dot. Atxorrotz egunerako bata barrixe eitten oskuen ta urte guztirako. Ha domeketan diarixo; domeka guztietan. Ya gero beste bat barrixe eitten euenien ha aste-egunetan be bai; bestela aste-egunetan ez, e! Aste-egunetan estropiau eitten da ta.
- Jai-egunetarako, orduan, baeuan erropa…
- Bai.
- … apartekua.
- Apartekua.
- Ta batie ze izeten zan? Zelakue?
- Perkalen bat… Perkalezko telia, ezta? Oin ez dao perkalik; izararik be ez dao perkalezkorik eta. Eskerrak lehen ein nittuena, bestela… nik horrek nylon-ezko izaretan ezin dot lorik ein.

7. Harizko izarak

- **Erref**: LEI-003/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Harizko izarak; linuzkoak...

Transkripzioa
- Gurien ama difuntiek harizkuek. [Haik, ez dakitzu? Haik] antiguakuek. Ta baeuezen aittak Madrittik ekarritta hau sukaldiau tapauko euen. Ta, klaro, bigaz hiru izara ein: zatixa kendu, ezta, ta bestiari zatixa ta erdittik josi ta ala! Beste bat. Ein gittuen, ezta? Ondion bi ein barik dauz, zeatik holakotxe bordaua dauke, e! Holakotxe bordauak. Eta… egongo zarie hor; batenbatek aprobetxauko […], bestela, barriz, usteldu deittezela. Bai. baiña gurien harizko erropie gastetan zan, e! Gure ama difuntiak algodoizkorik ez euken; ez euken. Harizkuak. Berak ein zittuenak be dozenerdi harizkuek. Ta aittajauna difuntuek be harizkuek euken… Horrek sendotxuauek […] eitteko. Eta holaxe. Ba, gure bizimodue holaxen izan zan.
- Harizkue nik entzun inda dakot, baiña zer da…?
- "Hilo".
- Bai, "hilo". Eta perkala ez da hari-mota… zer da? Ez da harixa?
- Algodoia.
- A! algodoiakin…

- Algodoia.
- A! Perkala be algodoia...
- Perkalezkue bai, algodoia.
- Algodoia da orduan...
- Algodoia da, bai.
- Ta linozkuak lehenaokuek izango zien?
- Linozkuek... Horrek linozkuek badaoz... liñua fiñaua eta sendotxuaua eta gero hori beste piketan dauen hori. Halakorik ez euen gurian.
- Horreik lehenaokuak...
- Antiguakuak, bai.

8. Antzinako ezkontza

- **Erref**: LEI-003/011
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Ezkontzako arrioa. Kontu polita.

Transkripzioa
- Ni akordetan naz, hemengo kaleko bat euen, ezta, Arraten hor baserrixen ezkonduta. Ta, ba, klaro, ha ezkondu zanien berak kontetan euen bere bodia zelan izan zan. Sarrittan.. Ta nik esaten notsen: “Casimira, kontaizu bodia”, “Ba, ume, gari joten ni egon nintzonan atsaldeko bostak artien —hementxe, e! Hementxe—, eta atsaldeko bostetan hankak garbittu errekatxuen ta mosue ta baiezkue emoten fan nintzonan”. Holaxen. Bai, zu. Baiña berak saladiau kontetan euen ta nik esan ta esan eitten notsen. Handik denporalditxo bat pasau ta “Casimira, kontaizu bodia”. Kontauko euen bere bodiori ta... Bere aitta ta ama, ba, hemen, hau taberniau dauen lekuen bizi zien, ezta? Eta emon otsen zera, ba, eleixatik etorri zienien, pipar haundixak. Pipar gorrixak, ezta? Horretarikuak. Udie zan ta. Emon otsen. Arratera fan ta oillue euken afaitteko. Pentseizu, oillue saltsan ifinitta. Zopie ein ta afaitteko. Ta hurrengo egunien fan zien gaztañadixa ezauketan. Gaztañadixa euken hor kanposantu zerien, ezta, ta, ba, terrenuek ikusten, zertzuk zien baserrikuek. Eta gero astelehenien Arrikrutzera garixa joten. Baiña saladiau kontetan euen berak! Eta lobak, Donostiko seme nausixenen neskatillak, etorten zien ta esaten otsen: “Amama, kontau bodia”. Ulia hartzen otsen, “Amama, kontau bodia”. Ba, beti bat. Beti bat. Bai. Ba, holaxen.

9. Gerrako kontuak

- **Erref**: LEI-003/013
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:22:25. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra sasoiko kontuak. Gatzagara joan zen jende asko gosea kentzera.

10. Gerra garaian, Araban

- **Erref**: LEI-003/015
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:23:45. **Bukatu**: 00:25:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Gerra sasoian, Araban egon zen etxe batean josten.

11. Josteko makina

- **Erref**: LEI-003/017
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Alfa makinarekin lan egindakoa gaztetan. 500 pezeta ordaindu zuten.

12. Gerra Zibila irten zeneko eguna

- **Erref**: LEI-003/019
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:30:50. **Bukatu**: 00:32:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Gerra Zibila irten zeneko eguna.

13. Kartzelako kontuak

- **Erref**: LEI-003/020
- **Iraupena**: 0:06:45. **Hasi**: 00:32:05. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Kartzelan egon zen 22 hilabetez gurasoekin batera. "Begi guztiek ez daue batera negar egitten". Kartzelako kontuak.

14. Kartzelatik Gatzagara itzulera

- **Erref**: LEI-003/021
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:41:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Kartzelatik irten zenean, Gatzagara itzuli eta beraien etxea beste batzuen esku zegoen. Etxea berreskuratzeko egin behar izan zituztenak.

15. Kartzelatik irten zireneko kontuak

- **Erref**: LEI-003/023
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:42:00. **Bukatu**: 00:42:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Kartzelatik itzultzean, gorriak zirelako, 100.000 pezeta ordaindu behar izan zituzten.

16. Gatzagatik kartzelara eramandako mutilak

- **Erref**: LEI-003/025
- **Iraupena**: 0:05:55. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:49:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Anaiak eta Gatzagako beste mutil batzuk kartzelara eraman zituzten; baina, Oreja politikariaren laguntzari esker, etxera itzuli ziren. Gerrara eramandako beste mutil batzuk nola hil zituzten.

17. Gerra garaian desagertutako baserritarra

- **Erref**: LEI-003/026
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:50:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Baserriko emakume bat gerra garaian desagertu zenekoa.

18. Gerrako kontuak

- **Erref**: LEI-003/027

- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:50:18. **Bukatu**: 00:51:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aitaren bila etorri ziren bide bazterrean hiltzeko asmoz. Horrelakoak sarri gertatzen ziren; zergatiak (gorrotoa, besteak beste).

19. Hauteskundeak

- **Erref**: LEI-003/028
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:51:35. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Gerra aurretik hauteskundeak egon ziren. Abertzaleen mitinak (Monzon, Bergaretxe, etab.). Batzokia. Arrasateko karlisten mitinean gertatutakoak.

20. Giro politikoa

- **Erref**: LEI-003/029
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:59:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Hauteskundeetan, karlistek baserritarren botoak erosten zituzten 5 pezetaren truke. Aita errepublikanoa; aitajauna liberala. Egunero egunkaria erosten zuten (La Gaceta del Norte, La Voz de Guipúzcoa, El Liberal).

21. Aisialdia

- **Erref**: LEI-003/030
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:59:30. **Bukatu**: 01:02:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Jai egunetan nora joaten ziren. Uda sasoian Landara joaten ziren erromeriara. Gatzagakoak iritsi arte ez zen hasten. Trenez Gatzagara; egiten zituzten tranpatxoak. Aramaitako kanpaiak jo orduko etxera.

Transkripzioa
- Dantzara-ta Landara faten zitzien?
- Bai. Udan Landara ta neguen herrixen. Landara. Landara fan atsalde... Bezperetatik urtenda, e? Zuk ez dozu jakingo bezperak zer dien...
- Ez.
- Oin ez dakit zela deiketan dotsen, “maitines” edo ez dakit zelan esaten dotsen. Atsaldien egoten zien eleixan, elizkizune, ezta? Bezperak. Errosarixua. Eta gero handik urten —nobenaren bat beuen, ba, nobenia eindda urten— eta Landara oiñez, miña atarata, aldatza gora hemen. Ta gero han Landan...

22. Kanpai klaseak

- **Erref**: LEI-003/032
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:03:10. **Bukatu**: 01:04:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Kanpaien inguruko azalpenak. Arrasaten egon zeneko kontuak; ostiral guztietan arratsaldeko 15:00etan hil-kanpaia jotzen zuten.

23. Kanpai klaseak

- **Erref**: LEI-003/033
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 01:04:10. **Bukatu**: 01:06:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Kanpai klaseak. Su-kanpaia. Hil-kanpaia.

Transkripzioa
- Kanpaiak diferentiek izeten da, ezta?
- Bai.
- Guk oin ez dou...
- Bai, sonido... sonido diferentie eukitten daue. Bai.
- Zenbat kanpai daz?
- E?
- Zenbat kanpai-tipo edo ze...?
- Asko egongo die. Segun...
- Aramaittakue...
- Aramaittakue, anjeluse esaten otsen erderaz, ezta? Aramaittakua. Goixien “el alba” edo gura dana goizeko bostetan-edo eguna zabalketan euenien ta holan illunketan euenien aramaittakuori.

- Ta anjelusa?
- Hamabixetan be joten euen.
- Baiña gero sua zanian be…?
- Baitta! Kanpaiak, su-kanpaia. Kanpaia joten ekitten otsenerako baekixen “Su-kanpaia da, edo basoren batek edo zerbaittek hartu dau sua”. Bai, bai, holaxe.
- Desbardiñak zian, orduan?
- Bai, bai, desberdiña. Ta hiru kanpa baiño ez geuen ikusten kanpantorrien ta diferente joten euen. Sonido diferentie eukitten euen, bai.
- Eta joteko arduria norena?
- Sakristauena.
- Gero, hil-kanpaiek be diferentiek?
- Bai, hil-kanpaiak be diferente joten daue.
- Segun ta nor dan hil dana?
- Ez, joten daue, ezta, honenbeste kanpa edo zera ta gero azkenien, gizonezkue bada, “Klon-klon” birritten edo ez dakit zelan. Hortxe dao diferentzia, azkenengo kanpaietan, edo gizonezkue edo emakumia zer dan.

- Eta umie bada?
- E?
- Umie bada?
- Umia bada, aingeruen kanpak joten dittue, kanpa alegriak. Holaxen.
- Guk […] ez [dou] ikasi ta…
- Ez, guretako danak igualak…
- Klaro. Danak, klaro.
- Ta entzuten egon be ez gara itten…
- Baiña horrek badaki diferentiak joten dauena.
- Bai, entzutia bai, baiña ezauketan kanpak…?
- Ez?
- Nik neuk ez, behintzet.
- Bai, igerten jakue.
- Hil-kanpak igual lentutxuauak dia, ez? Hil-kanapaiek…
- Bai, bai.
- Batetik bestera tartie ta… Ez?
- Ez dakit. Nik… Igerten jakue bai, zaratan igerten jakue.

24. Ospitalea; Dorletako eliza

- **Erref**: LEI-003/034
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:06:15. **Bukatu**: 01:09:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:
Ospitalea egon zen Gatzagan, Casa de Beneficencia. Dorletako eliza.

Transkripzioa
- Hemen Gatzan ospittala-edo auen, ezta?
- A! Bai.
- Ze…?
- Ospittala ez zan, “Casa de beneficencia” zan. Horrek Zalterain famelixiek

itxittako dirua —pezeta bat igual izango zan, ezta? Baiña…— egunien, ba, bat eukitteko, behintzat, jasoteko. Herriko… herriko semiek izan bihar auen, e! Eta egoten zan andra bat. Ez zan sekula iñor egoten ta andra bat eukitten euen, ba, etxie zainketako ta egoten bazan bateronbat ha zainketako ta zerien. Ehun pezeta hillien emoten otsen andriari.
- Hango lanak ittiarren?
- Hango gauzie ta etxia libre. Ezta? Ta egoten zan, bai. Nik ez neuen… Ni ez naz akordetan hori biatien, lehen egon zan biatien zera, Andra Marixen egon zan bietien ama egon zanik. Ezta? Ez naz akordetan, hareaz ez naz akordetan. Ez naz ez, ez, ez zertzen. Gero egon zana urte askuen egon zan, ba, hil arte. Alargune zan.
- Ospittala be bietien lana izeten zan ospittala zainketie?
- Ez. Ez. Hak andra bat page… andra bateri pagetan otsen ehun pezeta egunien. Ta zelan iñor ez zan egoten, ba, berak etxie libre eta, ba, gure dauena ein deixen. Bai. “Casa de beneficencia”.
- Ta han ezer ez eukenei lagundu edo zer…?
- Ba, ez… Zuk… nezesidadien bazaz etxien ta ez bazauz ondo, ba, haraxe errekojidu, ezta? Ta, ba, han zuri, ba, jaten emon ta zainddu ta garbittu ta, ba, zer bat letxe. Bai. Residentzia…
- Etxeik ez badaukotzu, ba…
- Bai. Residentzia baten egotia letxe. Oin ezebez.
- Herrikue izan bihar.
- Herrikue, bai, herrikue izan bihar; kanpokue ez, herrikua, herrikua.
- Eta biatia zer zan?
- Ha zera, Andra Marixe zainketan euena, Ama Birjiñia zainketan euena. Bietia. Bietia esaten otsen ta!
- Ta haxe zan bere lana?
- Haxe bere lana: Andra Marixa garbi euki ta haxe. Baterenbat faten bazan atendidu ta horixe. Zabalik egoten zan lehen egun guztien egunero! Dorletako eleixie zabalik egoten zan lehen. Klaro, ha euen zainketako ta! Horreaittik.
- Ta hango garbittasunak edo…?
- Danak, danak.
- Eta ze izeten zan, moja bat edo ez?
- Ez, nik lehelengo ezautu nauena zera, ezkondue zan. Ezta? Gero ez, hau bigarrenau monja egon ta monjatatik urtendakua. Horixe. [Anita]. Ha hil zan ta akabo.

25. Dorletako beata etxerik etxe batzen

- **Erref**: LEI-003/036
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:10:10. **Bukatu**: 01:11:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Dorletako beata etxerik etxe dirua batzen ibiltzen omen zen.

Transkripzioa
- Ta lehen bietiorrek eta dirue-ta batzen auen Dorletarako edo…?
- Bai, etxerik etxe ibiltten zien, ibiltten zan batzen. Ez dakit… Honeik hemengo Eskoitzako auzuna guztiok, ezta? Ta Atxabaltakuek be baietz uste

´t, ez dakit, eta herrixen be bai batzen euen, ezta? Ta, ba, eukenak eukena emongo otsen. Txakur txiki bat baeueken, txakur txiki bat; ta haundixe baueken, haundixe.
- Eta dirue zetarako izeten zan?
- Ba, beretako.
- A! Beretako...
- Ez euken sueldorik eta. Ez euen orduen oingo moduen bodarik. Badakitzu? Ta horrek be asko esan gura dau. Bodatan gutxi itxitta be batek igual ez dau itxiko, baiña beste batek [hiru bat lau] milla pezeta itxitta be... Ta egon direz astiak hemen... Oin ez, oin ez dao hainbeste, e! Badaoz betik be bodak, baiña oin ez dao lehenaoko moduen. Oin hamar urte igual astien lau ta bost boda. Zapatuetan hiru boda? Kasi zapatu guztietan. Bai. Badakitzu, haik bostehun pezeta itxitta be milla ta bostehun pezeta die.
- Ya... Baiña harek ez euken holako diruik eta batu ein bihar...

26. Sasimedikuak Gatzagan

- **Erref**: LEI-003/038
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 01:13:38. **Bukatu**: 01:17:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Sasimedikuak Gatzagan. Sendabelarrak.

Transkripzioa
- Gatzan kuranderuek asko [zeren]. Danak zien kuranderuek, danak ekixen. Teresa “Bizimodusia” primerakua.
- Zein?
- Teresa “Bizimodusuena”... “Bizimoduena”. “Bizimodu” esaten otsen. Teresa euken izena, ezta? Eta andra txikitxo bat zan. Zuk orkatillia bihurketan bazeuen, ez dakit zelan demonio ifini ta bendetan otsun ta ondo jarten jatzun. Bai, bai. Eskue eukiko euen. Holaxe.
- Bat baiño gehixao zian, esan dozu?
- E?
- Kuranderuak bat baiño gehixao?
- Bat baiño gehixao egongo zien, baiña kalien zelan bizi zan, ezta? Ha zan gure kuranderiori. Danak ez zittuen jarten ondo, baiña...
- Ta bedarren barri ta be baekixen?
- Bai, bai, gure amari emon otsen errezeta bat bedarrakaz eitteko, ezta? Eta ez dao haren moduko pomadarik. Zuk itten doz... Nik oin hau erreta euki dot eta badaukat erreendako pomadia, baiña ez dotsat emun, zeatik betik uretan ta zera, baiña herida bat, infeziño bat, erlakistanak, ezta, urteten daue ha pomadia ifini, berotu eta... Gasan ifini ezkero, ba, urtu eitten da ta jausi eitten da, ezta? Baiña harizko... harizko tela zatitxo baten ifini, ta gero ifini esparadrapue edo gura dana eta berde badao be zertu eitten dotsu, berak bigunketan dau eta atara eitten dau. Nik eindda dauket. Gauza bat falta dau, ez dakit zer ez notsen bota, bedar bat. Ez neuken ta ez notsen bota. Ta gero argizarixa apur bat sobrau itten jaten ta gehitxuao bota notsen. Baiña bestela, ba: koipia, koipia edo sebua, ezta? Sebua hobeto ondion, ardixen zera hobeto bestelako koipia baiño. Koipia, kipula gorrixa... Kipuliak gorrixak izan bihar dau, e? Zurixak ez dau balixo.

Gorrixa. Zartakiñan eindda soseguz, soseguz, soseguz. Egun guztien euki hor atzekaldien txapan ta ala ein dailla! Gero, koñak apurtxo bat, jaboi... baiña jaboia txinbo edo lagarto zatitxo bat, bai, eta zera, ezti... ezti panala. Ezta? Argizaixa. Baiña erosi... dendan erosittakuak ez dau balixo, e? Zera, erliena izan bihar dau.
- Panalekue...
- Panalekua, bai.
- Zati bat bota, ezta? Eta horreitxek uste dot diela: sebua, kipulia, eztixori eta ez dakit... Gero beste bedar bat botaten otsen, gurien ama difuntiek botaten otsen bedar bat be, berak esan otsen ta. Ezta? Ta ortuta fan ta ekarten euen baiña [...] ez nekixen zelakua zan. Esan neuen: “Hori gastau jatak”. Ez dakit zenbat urtien euki neuen bost edo sei urtien holako fraskutxo baten, hortaiko maihonesa horreik frasku txikitxuek saltzen zittuen, ba, lehenau? Oin ez daue saltzen, oin potietan saltzen daue, baiña hor fraskuen, ezta? Eta, zu, halakotxe fraskutxo baten emon ama difuntiek eta, baiña igual hogei urtien eukiko neuen, e! Eta azkenengoko hondarra gastau zanien esan neuen: “Ba, ein ein biharko dot”. Ba, [horixeaz ein], primeran. Nik edozein herida badaukat “ranba” ifintten dot eta ez daukat gehixao kurarik ein biharrik, haretxeaz primeran osaketan da. Ta pusa badaukatzu atara eitten dotsu.
- Zikiña atara?
- Bai. Eta gero, ba, bera apurtxuka-apurtxuka sikaketan da.
- Eta igual balixo dau erriendako ta...?
- Klaro! Herida guztiendako.

27. Sendagilea Gatzagan

- **Erref**: LEI-003/040
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:18:50. **Bukatu**: 01:19:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Sendagilea Gatzagan. Sasimedikoak.

Transkripzioa
- Medikuik-eta, bestela, hemen ez zan...?
- Bai, medikue egoten zan.
- Bazan?
- Bertan egoten zan medikua orduen, ni umia nitzanien, gaztia nitzenien, bertan. Gero ez. Gero etorri zan bat, ez dakit nungua zan bera, gero Eskoitzara fan zan, ezta? Ta hil da; gero Donostiara fan zan ta hil zan. Ezta? Don Domingo. Eta ha hemen tabernan egoten zan apopillo. [Lorentzuena] zan tabernia, ezta? Ta apopillo han egoten zan. Baiña gau ta egun egoten zan medikua fijo Gatzagarako. Gero, ba, ekin otsen bati ez dakit zer ta best... ta gero kitto.
- Gero kuranderiena fan bihar...
- Kuranderiana medikue euenien be bai!
- A, bai, e? Harekin fede gehixao?
- Sarrittan bai, segun zetarako.
- Bai, lehenauko erremedixuak asko ta asko...
- Bai, naturalauak.
- Jakin ein bihar ze bedar ta zela...

28. Sorgin kontuak; kaletarrak eta baserritarrak

- **Erref**: LEI-005/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:06:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Sorgin kontuak. Baserritar eta kaletarren arteko harremanak. Umetan, ez ziren elkarrekin ibiltzen.

29. Marulandako erromeria

- **Erref**: LEI-005/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:08:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Koskortutakoan, Marulandara joaten ziren. Abadeen debekuak. "Infernuko hauspoa".

30. Maiatzeko loreak; umetako bihurrikeriak

- **Erref**: LEI-005/005
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:09:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Atxorrotzeko jaieguna; maiatzeko loreak. Umetako okerkeriak.

31. Gasteizera prozesioa ikustera; Arrasateko feria

- **Erref**: LEI-005/006
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:09:25. **Bukatu**: 00:10:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Eskoriatza eta Aretxabaletara joateko ohitura gutxi zuten. Gasteizera berriz, urtero joaten ziren. Gasteizera Prozesioa ikustera joaten ziren gauez. Baserritarrak ostera, Arrasatera joateko joera izaten zuten, feriara. Autobus txiki bat jartzen zen horretarako.

32. Familiako ekonomia

- **Erref**: LEI-005/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:13:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Etxeko diruak amak gordetzen zituen. Aita, ama baino eskuzabalagoa zen umeekin.

33. Emakumeen egoera gizartean

- **Erref**: LEI-005/009
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:17:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen. Emakumeen bizimodua. Arropak non garbitzen zituen amak. Dorletako urak gatza zuela eta ez zitzaion gustatzen bertan arropak garbitzea. Han inguruan iturburu txiki batetik "uratza" irteten da. Lehenagoko sineskerak.

34. Oinetakoak: abarketak

- **Erref**: LEI-005/010

- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:55. **Bukatu**: 00:19:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Oinetakoak. Abarketak eta jai egunetan zapatak erabiltzen zituzten. 12 urterekin aitak ekarri zizkion lehenengo tenis-zapatilak. Bertan bazeuden abarkagileak ere.

35. Orrazkera kontuak

- **Erref**: LEI-005/011
- **Iraupena**: 0:05:25. **Hasi**: 00:19:45. **Bukatu**: 00:25:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Orrazkera kontuak. Umetan kopetak eta trentzak erabiltzen zituzten. Ile-apaindegira joateko, Gasteizera. Ilea nola zaintzen zuten. Buruko zapia, baserritar nagusiek erabiltzen zuten. Mutilek ilea beti motz erabiltzen zuten. Txapela ume-umetatik. Barberoa.

36. Lardero eguna: umeak eskean etxez etxe

- **Erref**: LEI-005/015
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:35:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Umetako jolasak. Gaueko eskola. Eskean irteten ziren neska-mutilak: "kantau ala errezau?". Toponimia. "Lardero" kanta. Panpota, ogi berezia. Jai eguna nola ospatzen zuten.

37. Lardero eguna Gatzagan: ospakizunak

- **Erref**: LEI-005/016
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:38:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Jai eguna nola ospatzen zuten. Maistrarekin bazkaltzen zuten. Tanbolinteroei dirua banatzen zitzaien. "Lardero" eguna.

38. Lardero eguna Gatzagan: ohitura zaharrak

- **Erref**: LEI-005/017
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:40:40

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Lardero eguna. Ohitura hori amaitu da. Eskuan ziri bat eramaten zuten; burduntzia. Poltsero, burduntzero; zestero.

39. Baserritarren janzkera

- **Erref**: LEI-005/018
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:40:40. **Bukatu**: 00:42:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Baserritarrak nola janzten ziren. Gona eta "txanbria"; amantala. Kotrseak erabiltzen zituzten. Luto kontuak. Zenbat urtetan gorde behar izaten zen lutoa.

40. Gorpuzti eguneko ospakizunak

- **Erref**: LEI-005/019
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:42:50. **Bukatu**: 00:44:55

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Gorpuzti egunean kaleak apaintzen ziren. Arkuetan aldareak ipintzen ziren. Prozesioak. "Ixia" belarra botatzen zuten. Herriko kaleak.

41. Bataioaren inguruko ohitura, usadioak

- **Erref**: LEI-005/024
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:56:15. **Bukatu**: 00:58:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Bataioen inguruko azalpenak. Ahal izanda umea jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zen; horrela indulgentziak irabazten ziren. Ama teilapetik irten gabe egon behar zen elizara sartu baino lehen.

42. Bataioaren inguruko ohitura, usadioak

- **Erref**: LEI-005/025
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:58:10. **Bukatu**: 00:59:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Bataiatu gabeko umea hilez gero, "linbo"ra joaten zela esaten zen.

43. Sorgin kontuak Gatzagan

- **Erref**: LEI-005/027
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 01:01:50. **Bukatu**: 01:04:25

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Sorgin kontuak. Anbotoko Mari; Galtzagorriak. Aita zenak behin laminak ikusi omen zituen; orduko pasadizoa. Toponimia.

44. Aitaren ibilerak: Madrilera sukaldaritza ikastera...

- **Erref**: LEI-005/030
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:07:35. **Bukatu**: 01:08:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitaren ibilerak. 13 urterekin aitajaunak Madrilera bidali zuten sukaldaritza ikastera. Hango bizimodua ez zitzaion gustatu eta hona itzuli zen arotz lana ikastera. Apotzagatik Eibarrera, handik Bilbora eta berriz Gatzagara itzuli zen.

45. Neskame Aetxabaletara

- **Erref**: LEI-005/031
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 01:08:30. **Bukatu**: 01:09:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Ama 13 urterekin Aretxabaletara bidali zuten, karteroaren etxera neskame bezala lan egin zezan. Handik Bilbora joan zen eta bertan ezagutu ziren senar-emazteak.

46. Sorgin kontuak; laminak

- **Erref**: LEI-005/032
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:09:00. **Bukatu**: 01:10:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Aitak ehizarako zaletasun handia. Lamina ikusi zuenekoa.

47. Mutilen okerkeriak

- **Erref**: LEI-005/033
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 01:10:15. **Bukatu**: 01:12:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Mutilak irrintzika ibiltzen ziren. Ezagun baten inguruko kontuak. Mutilen okerkeriak.

48. Gatzagako kaleetan abereak

- **Erref**: LEI-005/036
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:13:55. **Bukatu**: 01:14:50

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Abereak basora eramaten ziren. Etxeko kaleetan ere abereak ibiltzen ziren.

49. Ehiza-txakurra

- **Erref**: LEI-005/038
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 01:15:25. **Bukatu**: 01:19:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Ehiza-txakur baten inguruko kontuak.

50. Tanbolineroak irakurtzen zuen Bandoa

- **Erref**: LEI-005/039
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 01:19:40. **Bukatu**: 01:20:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Herriko bandoa tanbolineroak irakurtzen zuen jendea mezatik irtendakoan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com